

Bidean izan zen: Jon Kortazar mintzaide

KARLOS DEL OLMO, BERBA-LAGUNA

Jon Kortazar Uriartek gaurko euskal literaturaren basabideak ebaki, zapaldu eta maizten ditu —ia guztiz higatu arte—, irakasle, saiogile, kritikari, idazle, enbaxadore, kronikari, euskaltzain eta beste hamaikaxo behargintzatan jardunda; hori dela bitarte, ezaguna ere ezaguna da euskal literaturaren errepublikako lurretan, Euskal Herrian nahiz Atze Herrian. Zertan ekarri, hortaz, batez ere itzulpengintzaz diharduen aldizkari batera? Harengan hain ezagun ez den beste alderdi baten ondorioz dator, hain suertez: itzulpengintzarekin duen harremanagatik, itzultzea ez zaiolako arrotz, ezelan ere, berbera itzultzaile ere izateaz gain, haren lan batzuk hainbat hizkuntzatarara eroan dituztelako, eta, zertan esanik ez, euskal literatura munduan aditzera ematen duenean, euskal lan itzuliak darabiltzalako ziurgarri.

KARLOS DEL OLMO: Zer harreman izan du Jon Kortazarrek itzulpenarekin orain arte?

JON KORTAZAR: Alde bitakoa. Lehenengoa, beharbada, ez da ohikoena, baina Desclée de Bouwer argitaletxeak Alfaguararekin haur eta gazte literaturako hainbat lan itzulitzeko hitzarmena egin zuenean, ipuinak itzuli nituen. Baziren Arnold Lobelen ipuin batzuk, ikaragarri gustatzen zitzaizkidanak, eta haiek euskaraz eman nituen.

Askoz geroago, Manuel Rivasek eskatu zidan haren *A desaparición da neve poema* bilduma euskaratzeko, eta oso pozik gera-

tu nintzen *Elurraren urtzea* itzulpenarekin. Editoreak esan zidan ikaragarri gustatu zitzaiola, igual jatorrizkoa bera baino hobea zela; ez nion sinetsi, zeren originala baino gehiago ezin da egin. Baina oso pozik geratu nintzen itzulpenarekin. Gainera, itzulpen horren historia, *making-off* hori, oker ez bango, bi edo hiru aldiz argitaratu dut: nola egin nuen, zeren Manuel Rivasek daukan lan modua bat-batekoa da, aldaketa handikoa, ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko kontu bat, eta, orduan, erraza, ez zen erraza izan. Gogoratzen dut memento batean bidali zidala poema bat. Poema hura itzuli nuen

kopla zaharraren irudiarekin, haur literatura gogoan, oso pozik... Eta hurrengo bertsioa bidali zidanean hura desagertuta zegoen, berak gainetik marratuta, eta esaten nuen: “Egin dut lan bat, zoragarria, eta orain...”. Baneukan aukera hori berori neure izenarekin argitaratzeko, baina ez nuen egin.

KARLOS: Ohikoa izaten da literaturazaleari itaun egitea ea gomuta berezirik ba ote duen txikitik literatur grina piztu zitzaion moduaz eta ea piztuera horrek zerikusirik izan ote zuen literatura itzulpenarekin, gertatu ohi izaten delako literaturarekin izaten den lehen harremana ez izatea jatorriz norberaren ama hizkuntzan idatzita dagoen idazlan batekin.

JON: Aitortu beharrean nago oso mitomanoa naizela, hain zuzen ere, esperientzia horregatik. Aitortu behar dut, baita ere, neure lehendabiziko irakurle esperientzia —eta ez dut ahaztuko, beste nonbait ere kontatua dudalako—, *Robinson Crusoe*arekin izan zela. Moldaketa zen. Beraz, gaztelaniaz, eta moldatua. Daniel Defoeren *Robinson Crusoe*. Eta gogoratzen dut zelako grina jarri nuen liburu hori erosteko; buruan dut non zegoen salgai, Mundakan ez baitzen liburu askorik saltzen; beti bezala, estankoa zen, liburuak eta beste gauza batzuk ere saltzen zituen. Ni oso komiki zalea nintzen, eta kromo zalea ere bai, baina nik uste dut liburu hori izan zela neure erabakiz eta neure diruaz erositako lehena; beharbada, gurasoen iritzien kontra ere bai. Bruguerak egiten zituen moldaketa haietariko bat, ez?

Gero, egia da —mitoarekin jarraituz—, ni irakurketara, literaturara eta euskal literaturara zaletu izan naizela irakasleen bidez,

beharbada, beste batzuk bezala. Suertea izan nuen Mikel Zarate izateko neure irakaslea, eta gogoratzen dut baita ere, lehiatu nintzela Mikel Zaraterekin Aita Onaindiari berari —beharbada ahaztuta ditugun ohiturak dira horiek— *Mila euskal olerki eder* liburuaren erosten, eta erostera joan eta bidaiaren askoz gehiago gastatu nuen liburuak balio zuena baino; baina, hara, beti gertatzen zaiguna, “liburuak asko kostatzen da” esan eta, gero, hura erosteko bidaiak gehiago balio izatea.

Era berean, gaztelaniaz idatzitako literatura irakurtzera zaletu nintzen. Hartan, Txelis Beltran izan nuen irakasle. Eta gero gauza bat aipatu nahi nizun, zuk galdetu barik: nik uste dut neure bizitzan izan dudala patu bat: nire maisuak ordezkatzearena. Mikel Zarate hil egin zen, eta haren ordez hasi nintzen Deustuko Unibertsitatean euskal literatura irakasten. Tesia Luis Mitxelena-rekin egin nuen, eta Luis Mitxelena, zorionez, ez zen hil, baina erretiratu egin zen, eta Mitxelenaren ordez hasi nintzen euskal literatura irakasten Gasteizen. Maisu barik ibiltzea ere ez da ona!

KARLOS: Hari berari tiraka, alegia, aspaldiko garaietakoari, gomutan duzu jakinaren gainean eginiko lehen itzulpena, nahiz eta argitaratzeko izan ez?

JON: Gogoan dudana da, beharbada, diglosiaren kontua, ez itzulpenarena. Kolegioan aldizkari bat egiten genuen, euskaraz argitaratzen zena, eta nik, orduan, nire maisua izandako Egileor txistulariari, Mundakan ikur halako bat zen-eta, egin nion elkarrizketa bat, erdaraz, eta aldizkarian euskaraz argitaratu nahi nuen, eta kontua ez zen horrenbeste gaztelaniatik euskarara itzultzea,

baizik eta euskararen eta erdararen arteko diglosia. Gogoratzen dut gurasoekin aritu nintzela goiz baten hura euskaraz jarri beharrean, eta ez genekiela nola esan behar zen... “santo”, “santu” edo “deuna” esan behar genuen. Orduan, ez zen hainbeste itzulpenaren kontua, diglosia eta erregistroa ezezaguna izatea baizik. Ez genekien “santu” eta “deun” artean zer diferentzia zegoen.

KARLOS: Euskal literaturaren sisteman baduzu leku bat eginda, izen bat irabazia, ospea ere esan genezake. Une honetan, non kokatzen duzu zeure burua sistema horretan?

JON: Nik uste irakurle txarra ez naizela izan, irakurle fina izan naizela. Gero gertatzen dena da aritu naizela kritikan; literatur kritikak baditu alor bi: beharbada batak ez du hainbeste prestigiorik, hau da, kazetaritzan aritzeak; besteak prestigio gutxiago daukakoan nago, unibertsitatekoak. Batak arriskua dauka, besteak ez horrenbeste. Irakurle-irakasle eta iritzi emaile izan naiz. Iruditzen zait liburuak idatzi izan ditudanean erantzunak ez direla izan horrenbestekoak, prentsan jardun izan dudanean gehiagokoak izan direla, eta irakaskuntzan ikasleen estimazioa lortu dudala. Txikia, handia? Handi samarra, nire ustez, zeren, azken batean, ikasleen estimazioa agertzen baita tesietan ere, eta, zorionez eta ikasleei esker, tesi batzuk zuzendu ditut jada, dozenatik gora.

KARLOS: Zure ustez, etorkizunean Jon Kortazarren eskolaz berba egingo dute?

JON: Ez dut uste. Beharbada horretaz hitz egiten bada, izango da nire adiskideen, lan-kideen eta ikasleen eskuzabaltasunagatik.

KARLOS: Literaturan jorratu dituzun alor horietan, esango zenuke ildorik edo biderik ebaki duzula?

JON: Nire iritzia baino ez da, baina nik uste dut euskal literaturaren historia formal bat atonduta, egituratuta utzi dudala, hau da, nire lana izan da eraikitzea eta, beharbada, horren bidez, deseraikitzeo bideak ere, askatasun guztiak eman ditudala zabaltzeko, aldatzeko, moldatzeko; baina bada ni baino jende adituagoa, batez ere literatura klasikoan; Ibon Sarasolak behin esan zidan horrenbeste aipatzen ez den baina dagoeneko bigarren edizioan dagoen nire *Euskal literaturaren historia txikiak* planteatzen zituela bideak zabaltzeko. Gehiago egin dut, neurri batean, bideak definitu, baina bideak zabalik utzita; gero batzuk zabalik utzi ditudan ateetatik joan dira, eta aitortu egin dute, eta beste batzuek, ordea, ez.

KARLOS: Itzulpengintzara itzuli aurretik, orokorrean, euskal literaturaren esparru txiki bezain zabal horretan, zer ez duzu egin oraindik egitea gustatuko litzaizukeena?

JON: Ez dakit, ez dut horretaz askorik pentsatu. Nerabea nintzenean, eta askoz ere gazteagoa nintzenean, Unamunok ikaragarrizko garrantzia izan zuen niretzat, eta Unamunok esaten zuen behin aukera bat izanez gero beste bat galtzen duzula, ez? Nik uste nahiko pragmatikoa izan naizela, eta behin bide bat erabakiz gero, bidean uzten nuenak ez zidala horrenbesteko buruko minik sortzen. Pentsatzen dut ez naizela jainkoa, ez dudala berebiziko indarririk, arinago esan dizut maisu barik aritu naizela eta, orduan, behingoz erabaki bat hartuz gero

aurrera egin dudala. Zer nahi nuke? Ez da frustrazio bat, ez da, ez dut izango inoiz, ezta?, baina nik uste dut gure garaian hasi ginenok izan genuela ispilu bat, denok, ez nik bakarrik, nahi genuela —eta batzuek lortu dutela uste dut— Koldo Mitxelena izan. Zorionez, garaiak aldatu egin dira, ez dago monopoliorik, iruditzen zait askoz ere aro demokratikoagoan bizi garela eta aukera handiagoak direla denontzat. Zorionez diot, zeren —lehenago esan dizudanez kromoak niri asko gustatu izan zaizkit— kromo bakarreko aroetatik pasatu garen kromo anitzetako bildumetara. Nik uste dut jakin izan dudala jende anitz eta askotarikoarekin, hainbat iritziren jabeekin, lan egiten, eta halako jendearekin eroso nabilela.

KARLOS: Neurri batean, euskal literaturaren enbaxadore ere izan zara hainbatetan. Nolako jarrera topatu duzu euskal literatura itzuliari dagokionez?

JON: Askotan esaten da, eta niri ere hala iruditzen zait, hasi ginenean —noiz hasi ote ginen?—, 1975etik, XX. mendeko zortzigarren hamarkadatik hona, nik uste dut asko aldatu garela, itzulpenaren bidetik ere bai. Nire iritzian, sare bat baino gehiago dago. Gogoratu nahi nuke inoiz espero ez nuena gertatu zaidala: nire lana itzulita dago hamar hizkuntzatan, hamar hizkuntzatan!, eta ni ez naiz izen handiko idazlea euskal literaturan, baina hainbat sare dago, eta inportantea da hori aipatzea. Niretzat, esperientziaz, unibertsitatea da sare ezinbesteko bat, ni unibertsitateko gizona naiz, eta unibertsitateak bizi nau, unibertsitateak ordaintzen dit eta, beraz, nire semeen bizia hortik sortzen da, elementu ekonomikoa hortik dator. Haur

eta gazte literaturak ate asko zabaldu ditu, eta nik, horretan, beharbada, ez dut gauza handirik egin.

Euskal literaturak itzulpengintzaren bidez jo du mugak zabaltzera. Atxagaren eredu dago hor; eta egia da lehenago euskal literatura agertzen zela Espainian, Katalunian, argitaletxe txikietan, baina ez zen nahikoa editorial txikiekin lan egitea... Gogoratu nahi nuke aurreko mendeko zortzigarren hamarkadaren hasieratxoan edo pixka bat lehenago Renoko Unibertsitateak zabaldu zuela euskal literaturari buruzko sail bat, desagertu egin zela, orain baduela sail bat hedatzen ari dena. Badakigu denok herrialde bakoitzeko editorialik inportanteanean argitaratzea bermea dela, baina uste dut gai izan garela sare ezberdinak zabaltzeko, unibertsitateko sarea, literaturako sarea, oso inportantea, editorial txikietako sarea, editorial handietako sarea...

Sistema literario batek beti sortzen ditu ezinegonak, eta batek nahi izango luke gehiago; baina, behintzat, urte hauetan lortu dugu presentzia berezi bat. Ez dut ahaztu nahi: iaz tesi bat aurkeztu zen euskal itzulpengintzaz Letren Fakultatean, eta esaten zuenez, gehien itzuli den egilea Juan Kruz Igarabide da. Juan Kruz Igarabidek beharbada ez du Atxagaren balio sinbolikokoa, baina kuantifikazioak dio Igarabide dela. Horrek esan gura du gauza izan garela hainbat sare sortzeko eta sare bakoitzean egiten dugula ahalegintxo bat —ahalegintxo edo ahalegin handia—, eta sortzen ari garela hainbat dinamika. Berrit diot: ezinegonak izango dira eta sortuko dira tentsioak, baina gai izan gara oso eremu ezberdinetan lan

egiteko, hasteko eta jarraitzeko, eta gauzak lortzeko.

KARLOS: Zer harrera egin diote munduan euskal literaturari?

JON: Nik uste dut munduan enbaxadore on bat izan dugula: Atxaga. Nik ez dut dudarik egiten. Eta uste dut enbaxadore txar bat izan dugula: indarkeria. Nik oso esperientzia onak izan ditut, berriro ere unibertsitate girokoak. Beste giro batzuek beste zerbaitek konta nezake, baina unibertsitate giroko jendeak badu beste onarpen halako bat —ez dizut zabala esango— euskal literaturari dagokionez. Ez da askorik irakasten; une honetan irakurleagoak daude, eta haietan jendeak badihardu euskal literatura zabalduz.

Nik izan dudana esperientzia ez da txarra izan. Dena dela, esan beharra daukat Madrilen izan nuela euskal literatura euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen zuen Atenea argitaletxeko Euskal Liburutegia Saileko ardura, eta argitaletxeko jendeak esaten zidan ez zela batere ondo hartzen Madrilen, ez zutela ondo hartzen haien lana, eta eurek sufritu egiten zuten.

Dena dela, ez da mementoa horretaz hitz egiteko, zeren laster hiru eleberri agertuko diren euskaratik gaztelaniara itzulita, eta puri-purian daude: *Twist*, *Mussche* eta *Martutene*. Beraz... Zein da nire esperientzia? Nire esperientzia da eremu itxi, jakitun, unibertsitateko horretan nik oso harrera ona izan dudala, eta gero Madrilgo argitaletxe horretan egindako bidea, arduradunek esan didatenez, ez da hain loriatsua izan.

KARLOS: Aipatu ezinegon eta zailtasun horiek, literaturaren beraren eremukoak dira ala bestelakoak?

JON: Nik uste dut egile, idazle eta editoreen artean badagoela nik esan dudana ezinegon. Sistema literario bat bizirik dago, interesak daude, interesak ezin dira aitortu. Eta aitortzen badira, okerrago. Orduan, hor dago lapikoa, borborka, eta jakin behar dugu mugitzen ari garela. Nire bizitzan ere guztiak ez dira kritika onak izan, baina jakin behar duzu zer gertatzen ari den, hori dena mugitzen ari dela, eta ezinegonak horixe dira: ezinegonak.

Nik ulertzen dut idazleak oso denbora luzea pasatzen duela berak bakarrik, lanean, eta nahi duela bere obra horrek oihartzuna izatea, eta horrek, nolabait, ezinegonaren elementu bat sortzen du. Eta, bide batez, badirudi gaurko garai hau dela mugimendu handiko une bat, esaten didatenez. Nik ez daukat argitaletxerik, argitaletxeak ez dira nireak, ezagutzen ditut egile batzuk, beste batzuen adiskidea naiz, eta mugimendua dagoela nabaritzen dut, ezinegon bat.

KARLOS: Nolako ezinegon?

JON: Euskal literaturaren barrukoa, sistema-
ren baitakoa.

KARLOS: Irakurle eta literaturazale zaren aldetik, zure gustuko zein egile ikusi nahi zenuke euskaratuta?

JON: John Banville.

KARLOS: Idazlan jakinen bat?

JON: *The Sea* (2005), *Itsasoa*, alegia.

KARLOS: Eta zuk zeuk, behar diren baldintza guztiak alde izanda, zein egile euskaratuko zenuke?

JON: Banville. Baina ezingo nuke egin, ez memento honetan, behintzat.

KARLOS: Kritikari eta ikertzaile moduan, zelan ikusten duzu XXI. mendeko euskal literatura?

JON: Oso gauza konplexua da, esaldi batean ezin da aipatu zer den euskal literatura eta zer den euskal literaturaren sistema memento honetan, gure artean. Egileak baditu, editoreak baditu, argitaletxeek argitaratzen jarraitu behar dute, makina bat jarri dutelako martxan, eta orduan jende guztiari ordaindu behar diote. Irakurle kopuruak ematen omen du ardura pixka bat. Harkaitz Zubiriren artikulu bat irakurri dut horretaz, eta hark dioenez, oso irakurle gutxi gara. Gutxi izanda ere, nik uste dut sortu dugula sistema indartsu bat. Krisi ekonomikoan ari garela, beharbada orain arteko sistema literarioak egingo du aldaketa bat, aldaketa baten erdian gaudela iruditzen zait, beharbada kanonak aldaketak izango ditu, ez dakit etorkizuna zelakoa izango den, baina badirodi euskal kanonaren barruan egon den egonkortasun hori beharbada aldatzera doala. Emakumeek —kanpotik esaten didate beti emakumeen presentziaz oso arduratuta gaudela— benetan oso presentzia nabarmena izan dute azken urteotan eta halaxe jarraituko dute. Ez gaude, beharbada, orain hamar urte bezalako panorama berebean, literaturan izan dira hainbat indar, oso fuerteak. Argitaletxe batzuk oso txarto pasatzen ari dira, ustez. Orduan, horrek mugimen-

duak ekarriko ditu. Zeintzuk? Ezin ditut aldeztetik esan, baina aldaketa datorrela bai. Gero, nik argi daukat euskal literatura dela arnasaldi luzeko literatura bat, urterik urtera ez dira gauzak aldatzen.

KARLOS: Kanpora begira, zer proiektzio izan dezake XXI. mendeko literatura itzuli horrek?

JON: Hemen badira laguntza batzuk itzultzeko. Idazlanak itzuli egiten dira. Aspaldian entzun nion hitzaldi batean Bernardo Atxagari esaten Holandako irakurle bati gehien interesatzen zaizkionak Holandako idazleak direla eta, orduan, han denda zabaltzea eta beste literatura batzuk aditzera ematea ez dela hain erraza. Nire ustez, memento itxaropentsu batean gaude, hiru liburu horiek itzulita argitaratu direlako, eta berriro diot, kromo bakarra barik, kromo gehiago ditugu. Espainiaz ari gara, ikusi beharko Estatu Batuetan unibertsitateek zer aztertzen duten, ea haien bidez argitaletxeek nola funtzionatzen duten, hau da, argitaletxe komertzialek eta normalek: dirua arriskuan jarri eta dirua xahutu egin duten argitaletxeek nola egiten duten lan. Ikusiko dugu hori guztia zertan den, ezta?

KARLOS: Euskal literatura dela kausa, une goxoak eta ez hain goxoak bizitzea egokitu zaizu, esaterako, Sari Nazionalan... Itzulpenarekin ere zerikusia izan dutelakoan nago.

JON: Sariketa Nazionalan, nik uste, abantaila izan ohi dugu: hau da, gure etxean esaten den moduan, “paraje guztia” ikusiko bagenu, alegia, Espainian 50.000 liburu ar-

gitaratu ohi direla eta guk, ordea, mila eta zenbait; orduan, Sari Nazionalen egongo dira 20 liburu gaztelaniaz eta 1 euskaraz, hortaz, proportzioak gure alde egingo du. Nik irudipen bikoitza dut Espainiako Sari Nazionalarekin; alde batetik, jende askok esaten duenaren kontra, nik uste dut ez duela inork sari nazionalik irabazi aurretik euskal literaturaren sisteman arrakasta izan barik. Lehenengo, euskal sisteman gertatzen da arrakasta, eta gero bitartekari batzuk joaten gara Sari Nazionalera eta han saiatzen gara euskarazko lanaren alde egiten. Nik, egia esan, ez dut izan esperientzia txarrik, esperientziak izan dira nahiko onak, kalitatez —beharbada, hor, produktua gizartetik kanpo ikusten da, lan literarioa ikusten da mahai baten inguruan, tentsio sistemikorik barik—, egia da euskal lanak itzulpen bidez epaitzen direla, batzuetan oso ondo epaitzen dira, bestetan ez. Nik esan dezaket saiatzen gara ahalik eta lasterren esaten nor joango den, itzulpen txukunak —ondo itzuliak, ondo konposatuak, ondo koadernatuak— aurkezteko, kasik liburua balira bezala. Sari nazional bat interes ukitu bat ere bada, argialetxe batek plazaratzea ere interesgunea den moduan. Sari Nazionala agertoki berezia da. Dena dela, gogoratu nahi nuke, gaztelaniaz idazten duten Euskal Herriko saioegileek sei aldiz irabazi dutela sari hori. Horrek esan nahi du oso saio onak idazten direla gaztelaniaz, baina horrek ez du hainbesteko garrantzirik gizartean.

Berriro, sari hori eremu pribilegiozkoa da guretzat, proportzioak gure alde egiten duelako. Nik ez dut han disgustu handirik izan. Bai, ordea, Kritika Sarian: Sarrionaindiari saria ematean —nik bakarrik ez, beti

saiatu izaten naizelako aldizkarietan idazten duten kritikariei kontsulta egiten—, batzuen iritzia entzun nuen, nik hura aldeztu eta Sarrionaindiak saria eskuratu zuen. Lagun bati duela gutxi esaten nioenez, Sarrionaindiari Kritika Saria 2003an ematean, Espainiako telebistako berri emankizunetan baten batek esan zuen “begira nor saritu duten”. Duela gutxi Kirmen Uribe sarizatzean, Espainiako albistegietan agertu ere zen, baina bestela: iruditzen zait iritziak aldatu direla; beharbada, sintoma bat besterik ez da. Ez dut uste kanpokoak beti egoten direnik pentsatzen Sarrionaindia, Uribe..., baina niretzat memento bereziak dira.

Dena dela, Kritika Saria, egon naizen urteetan ikusi dut, eta egon ez naizen urteetan ere, oso eremu askea izan da, han, ez?, zeren Euskal Herrian badakit jendea ez zaio la gustatzen, han jendeak euskal literatura onartzen zuen behar zen moduan, eta esan behar dut Sarrionaindiaren defentsa eurek egin zutela nik baino askoz hobeto.

KARLOS: Dena dela, sarien sistematik at, *Soinujolearen semearen* inguruan ere izan zen iskanbilarik... Lurrikara txiki halako bat jazo zen gaztelaniaz argiratu zenean.

JON: Lurrikara txikia baino gehiago, seismo handia sortu zuen, benetan. Ignacio Echevarriaren kritika oso bortitza izan zen, oso memento larria izan zen guretzat, esan nahi dut, euskal literaturaren zabalkunderako, eta nire ustetan horrek ez zion mesederik egin inori.

KARLOS: Literatur sortzailea ere izan zinen. Erabat baztertu duzu literatura sortzea?

JON: Bai, bai. Niri, batez ere, irakurtzea gustatzen zait, eta irakurri dudana azaltzea. Hori ondo, gaizki edo erdipurdiko, nik uste dut txarto ez dudala egiten. Horretaz idazten dut, hori gustatzen zait, eta sariren batzuk eman dizkirate; beraz, ez dut uste gaizki egiten dudanik. Horretan ere saiatzen naiz noizean behinka literatura egiten, motela, baina literatura.

KARLOS: Eta izan duzun eskarmentutik abiatuta, zer alde ikusten duzu sormenezko idazketaren eta itzultzearen artean? Bietan bada zer edo zer sormenetik.

JON: Dudarik ez. Gauza da merkatuak, sistemak, memento honetan —eta euskal literaturaren sistemak garbiago—, babesten duela jatorrizko sorkuntza literarioa, eleberrian, batez ere. Zera esan nahi dut: gu gutxitxo gara eta nago batzuetan ez daukagula indar nahikorik dena jasotzeko, ez? Nobela lasaiago jasotzen dugu, horregatik argitaratzen da horrenbeste, eta eskoletarako. Poesia idatzi nahi baduzu, okerrago daukazu. Saia-kera idatzi nahi baduzu, beharbada, okerrago. Aldizkari baterako hitz gurutzatuak, are okerrago... Orduan, sistemak berak baditu indarrak esateko hau bai, hau ez, eta nik ez dut ukatzen, beharbada, obra baten barruan, sorkuntza ahalmena, mota batekoa zein beste-koa, badela; gero, hori hartzen den modua oso ezberdina izaten da gauza baterako ala besterako. Eta hori ere kontuan izan beharrekoa da. Ez dela bakarrik norberak idazten duena, argitaratzen duena, harrera baizik.

KARLOS: Baliabide guztiak alde izanda, zer egitasmo gauzatuko zenuke euskal literatu-

rarako amesten dituzunen artean, batez ere gurea atzerrian aditzera emateko?

JON: Egiten ari garena. Ez nuke aldatuko gauza askorik. Ahal izango banu, memento honetan fitxatu egingo nituzke Estatu Batuetan euskal literaturan interesatuta dauden irakasleak —batzuk fitxatuta ditugu jada, ez pentsa ametsetan ari garela!—, han indarra eta eragina dituztenak, eta haiekin, beharbada, buruz buruko elkarrizketak antolatu. Kontu kuriooso da, baina nik bide horretatik joko nuke. Une honetan, Bilbon hiru literatur jaialdi daude. Eta ekartzen dituzte kanpoko idazle ezagunak Bilboko Udalak, Kutxek, Alhondigak... Oso idazle bereziak etortzen dira. John Banville, Margaret Atwood... Eta katalanek, esate baterako, horrelako ekitaldiak aprobetxatzen dituzte haien literatura zabaltzeko; guk, nik dakidanagatik, ez dugu hainbeste erabiltzen Pen Kluba gure idazleak aditzera emateko. Katalanek, ordea, bai, literatura katalanaren indarra babesteko darabilte Pen Kluba. Etortzen dira kanpoko idazleak, ez? Nik ez dakit euskal idazleak haiekin egoten diren ala ez. Etortzen dira Bidebarrieta liburutegira Umorearen Astean, Gutun Zurian... Ba ote dago euskal idazleak eta besteak elkartzeko modurik halakoetan? Ez dakit, bada.

Nik nahi nuke aldrebes gertatzea, nahi nituzke poesiako Nobel sariak euskaraz edizio txukunetan eman, baina arestian esandakoaren alderantzizko asmoa da.

KARLOS: Zein euskal idazleren obra osoa ikusi nahi zenuke hainbat hizkuntzatara eroanda?

JON: Uste dut obra osoak oraindik oso urrun ditugula. Beharbada joango dira oraintxe dauden banaka batzuk. Atxagaren obra, esate baterako, ia guztia dago hainbat hizkuntzatan, baina ez beste formatu horretan, obra oso modura.

KARLOS: Aukerarik izanez gero, zein paratuko zenuke?

JON: Hiruzpalau, lauzpabost egingo nituzke...

KARLOS: Ez zaitut izenik aipatzera behartuko. Zure ikerketetan euskal literatura harremanetan jarri ohi izaten duzu unean-unean beste literaturetan egiten denarekin. Zer ondorioztatu duzu?

JON: Ez dago dudarik: gu Europa gara. Ez dago bueltarik: Lazarraga, antza, nobela pastoralarekin lotu behar da, garaiko Madrilgo poesiarekin, Etxepare Bordeleko eta Probenzako literaturarekin, Errenazimentuarekin. Ez dut uste edozein euskal idazle ulertu ahal denik beste kanpoko idazle bat barik... Adibidez, Anjel Lertxundi gonbidatu nuean Letren Fakultatera, ez dut gogoan zein nobelari buruz zen, beharbada *Ihes beteari* buruz, eta Lertxundik esan zuen: nobela hau idazteko irakurri nuen Toni Morrison idazle estatubatuarra, zeren eleberrigile horrek erakutsi zidan barne jarioa nola eman behar nuen euskaraz. Anjel Lertxundi gure-gurea da, oso euskara ona erabiltzen du, euskal estiloa erabiltzen omen du, *Hamaseigarrenean aidanezen* atzean García Márquez zegoen—, dena dela, beste eleberririk horren atzean Toni Morrison dago, Morrisonen itzulpenaren trataera bat, beraz, egile batek

aitortzen du bere idazlan baten atzean hala-ko idazle euskaratu baten trataera dagoela. Ezin dugu Euskal Herria ulertu Errenazimenturik barik, ezin dugu Euskal Herria ulertu Barrokorik barik, ezin dugu Euskal Herria ulertu Ilustraziorik barik —entziklopedisten adiskideak izan ginen—, ezin dugu Euskal Herria ulertu inondik inora Erromantizismorik barik, ezin dugu Euskal Herriko literatura ulertu Modernismorik barik, ezin dugu ulertu Euskal Herriko literatura Abangoardiarik barik eta abar. Orduan, erabat koherentea iruditzen zait, batzuetan irudipena badut ere arte plastikoa aurreratuagoa dagoela, ez duela hainbesteko konplexurik, ez dagoela arazorik aldarrikatzeko euskal artea postmodernoa dela, baina esaten baduzu euskal literatura postmodernoa dela jendea purrustadaka hasiko da. Zentzu horretan, euskal literatura, beharbada, kontserbadoreagoa da, baina ezin da ulertu inguruko mugimendurik barik.

KARLOS: Euskal literaturaren historia, aldez, euskaratutako lanen historia ere bada. Zuk euskal literaturaren historia bat idatzi duzunez, uste duzu gaur egun ere halaxe dela? Loturarik?

JON: Garaian garaiko loturak sortzen dira. Literatura mugitzeko gauzatxo bi dira beharrezko: bat, egilearen biblioteka, oso kontu inportantea, zeren badirudien memento honetan euskal egile bakoitzak bere biblioteka duela, hau da, bere literatur ereduak, eta biblioteka propio hori ezagutzen ez bada, igual egilea ere ez da oso ondo ulertuko, eta biblioteka hori, beharbada, egongo da kanpoko hizkuntzetan, ez euskaratua; gero, garbi dago, sistema mugitzeko beharrez-

koak dira itzulpenak. Guri gertatzen zaigu historian egin ditugun itzulpenak, XVII., XVIII. eta XIX. mendeetan, direla Eliza katolikoarekin loturiko itzulpenak, baina hori ez da harritzekoa edo arraroa, arraroa dena da beste ezer ez izatea. Une honetan gauza biak ditugu: egile biblioteka oso anitzak —ez da berdin Kirmen Uriberen biblioteka eta Harkaitz Canoren biblioteka, eta irakurle profesional batek biak ezagutu behar ditu, nondik nora dabilen haietako bakoitzaren bilduma—, hori egilearen bidetik. Sistemaren bidetik, literaturaren eguraldiaren aldetik, iruditzen zait itzulpengintzak garrantzi handia duela eguraldia moldatzeko eta eguraldia aldatzeko.

KARLOS: Orain zeuk zuzentzen dituzu tesiak. Baina zure tesiaren ingurukoak ez dira erraz ahaztekoak ere. Epaimahaian Patxi Altuna, Víctor García de la Concha, Jesus Maria Lasagabaster, Koldo Mitxelena...

JON: Eta Guillermo Carnero. Nik oso ondo pasatu nuen. Tesiaren defentsan, ez dakit... Egiten, oso ondo pasatu nuen, batetik, irakurri nuelako kasik-kasik Lauaxeta osoa. Sartu nintzen artxibategi batean, Diputazioko hemerrotekan, eta Lauaxetaren artikulu guztiak fotografiatu nituen, fotokopia bihurtu, zoritxarrez gaur egungo abantailak ez nituen, eta, oker ez banago, Lauaxetaren 2.000 orri irakurri nituen eta, gero, 80 poema aztertu...Eta hori izan zen nire abantaila.

Nik garbi neukan euskal literaturak behar zuela ezaguna izan, eta horregatik aukeratu nuen Víctor García de la Concha nire tesiko tribunaleko buru..., ez, burua uste dut Mitxelena izan zela, legea aldatzeko

zela eta justu-justu egon zela Koldo... Baina Víctor García de la Concha, Guillermo Carnero..., gero jarraitu dut horiekin lanean, Víctor García de la Conchak izan du gero bide "loriosa", baina beti izan dut hor erreferentzia modura.

Nik beti pentsatu izan dut euskal literaturaz aritzen bagara, azterketarik zailenak pasatu behar ditugula. Hori garbi izan nuen garai hartan, 1985a zen, oso garbi daukat. Tesia urte hartan egin nuen. Bide batez, epaimahaikideek gauzatxo batzuk adierazi zituzten, eta, tesiaren defentsa amaitu zenean, sartu nintzen etxean berriro beste kapitulu bat idaztera.

KARLOS: Hortik etorri zen Lauaxeta itzultzaile moduan ere aztertzea?

JON: Nik material zabal bat neukan. Oso zabala. Eta esan dizudan moduan, Lauaxetaren gaineko informazio pilo bat neukan. Uste dut oso gutxi aztertu dudala Lauaxeta itzultzaile zen aldetik; batetik, Lauaxetaren itzulpenak kolegio garaikoak direlako: konparatzen badira Lauaxetaren itzulpenak eta Zaitegik egindakoak, konturatzen da bat gauza bera itzultzen ari zirela. Hori da eskolatan norbaitek agintzen ziela hura itzultzeko. Nire harridura beste kontu batengatik zetorren: irakurri nituen Lauaxetaren gauza guztiak, eta Lauaxetak hainbat egile aipatzen zituen; konturatu nintzen Lauaxetak poesiaz eta Europako poesiaz nik baino askozaz gehiago zekiela garai hartan. Ni saiatu egin nintzen haren mailan jarriz: berak aipatzen zuen poeta bakoitza nik irakurri egiten nuen. Huts bat egin nuen: berak poeta batzuk irakurri arren, ez zituen aipatzen; adibidez, Unamuno; adibidez, Villaespesa, edo

J.R. Jimenez, eta horiek irakurri barik geratu nintzen. Eta garbi dago ezkutatuakoan ere eragin handia zegoela. Lauaxetaren umoreaz ere hitz egin behar dugu, eta umorez zegoenean, oso poeta berea zen, eta umore handiz ez zegoenean, noizbehinka, gauzaren bat edo beste hartzen zuen. Lauaxeta oso poeta fin, berezia da umore onez dagoenean, baina hain umore onean ez dagoenean, bertso hau halakorena dela esan daiteke, hemen beste poeta hau irakurri zuela, beste hau hortik datorrela, horrela sortu zela poema...

Baina bai, Lauaxetak gauzak ezkututzen ditu. Unamunoren eragina garbia da, eta ni ez nintzen konturatu. J.R. Jimenez goraino dago, beste batzuk ere bai, baina ni ahalegindu nintzen Lauaxetaren biblioteka ezagutzen, eta handik urte batzuetara agertu zenean bibliotekaren aurkibidea, behintzat, saiatu nintzen poetaren biblioteka nirea egiten. Esaten bazuen: "Nik Costa y Llobera irakurri dut", ni Costa y Llobera irakurtzen saiatzen nintzen. Eta gogoratzen dut esaten zuenean "Meterlinck", adibidez, ahalegindu nintzela Meterlinck irakurtzen. Eta Meterlincken teatro lan bat itzuli zuenean, hura irakurri nuen. Asko irakurri nuen, beraz, pilo bat, uste dut nire izaeraren kontu bat dela, baina uholdeak izan zirenean, 1983an, ni ari nintzen irakurtzen Keatsen *Oda greziar anfora bati* eta Lauaxetarengan eragina duen poeta horretaz idazten. Tesia bat-batean utzi eta han joan nintzen auzokoak ateratzera etxetik eta bustitzera, baina oso buruan daukat tesiaren inguruko hori guztia, abuztuko uholde horietan ari nintzela Keatsi buruz idazten.

KARLOS: Gaia aipatu dizut beharbada ez delako halako ezaguna Lauaxetaren alderdi hori, eta zuk horretaz idatzi duzulako.

JON: Nik gehiago idatzi dut Lauaxetaren eraginei buruz, eta argitaratu ditut haren itzulpenak. Lauaxeta, komentua utzi eta gero, etorri zen maletatxoa hartuta, eta hartan eskolan egindako itzulpenak ekarriko zituen, eta horiek *Euzkadin* argitaratu zituen eta pixkanaka-pixkanaka hasi zen ezaguna egiten.

KARLOS: Asturiasko Verinesen izaten diren elkarraldietan euskal literatura eta itzulpena gaia jorratu zenuen...

JON: Behin baino gehiagotan. Verines niretzat izan da, azken buruan, nire bigarren etxea. Nik tesia amaitu ondoren, 1986an-edo, hasi ziren elkarraldi horiek, eta, beharbada, hasieran, bultzatzaileetako bat zen Victor García de la Conchak berak ez zuen asko jakingo euskal literaturaz. 1986ko lehenengo hartan izan nintzen poesiaz jarduten. Gogoratzen dut Bernardo Atxagak denak txundituta utzi zituela. Hara joan ginen Patri Urkizu, Juan Mari Lekuona, Bernardo eta lauok. Gero ni ez naiz guztietara joan, euskal literatura oso zabala delako, baina Migel Angel Blancoren heriotzaren urtean nik oso-oso txarto pasatu nuen eta Verinesera deitu zidaten berriro, eta, benetan, izugarri eskertu nuen, niretzat barealdi oso garrantzitsua izan zelako.

Gero, kasik-kasik urtero joan nintzen. Carlos Casares izan zen elkarraldietan haien maskota, eta hura 2002an hil zenean, neu hartu ninduten maskotatzat. Ia urtero-urtero joaten naiz, bestela erabakitzen du-

ten arte. Nire bigarren etxe intelektuala izan dira elkarraldiak. Han jende asko ezagutu dut, handik jendea gonbidatzen nuen Mungian edo Bilbon hitzaldiak ematera, batez ere Mungiara, han urtero oso hitzaldi sorta ederra antolatzen zelako, eta, gainera, suertea genuen: gonbidatzen genuen Manolo Rivas eta hurrengo urtean Manolo Rivasek Sari Nazionala irabazten zuen; gonbidatzen genuen Luis Alberto de Cuenca eta hurrengo egunean Luis Alberto de Cuenca ministroa ez bazen, kasik ministroaren bigarren izendatzen zuten, Estatuko idazkari-edo; gonbidatzen bagenuen Jon Juaristi, Jon Juaristi ezkondu egiten zen... Horrelako kasualitateak gertatu izan zaizkigu Verinesetik jendea Mungiara gonbidatuz. Mungiatik jende asko pasatu izan da: J.M. Merino, L.A. de Cuenca, Luis Mateo Díez, Luis García Montero, Almudena Grandes, Sepúlveda, Suso de Toro, pila bat... Etortzen ziren institutuko jendearekin hitz egitera...

Verines barealdi handia izaten zen niretzat, asko ikasten nuen, eta gero, bigarren erreplika bat izaten zuen Mungian.

KARLOS: Errusierazko euskal literatura esango banizu?

JON: Erantzun behar nizuke Roberto Serrano. Munduan bada oso jende eskuzabala, eta R. Serrano horietako bat da. R. Serrano egin nahi zuen tesi bat euskara eta georgieraren arteko loturaz hitz egiteko, gauza zoro bat. Zorionez, Errusian maitemindu egin zen, errusiar batekin ezkondu, errusieraz ikasi eta sortu *Gernika* izeneko aldizkari bat, webgune bat eta ari da euskal literatura laguntzekin errusierara eramaten. Aipatu beharrekoa da beste ikertzaile bat, Roman

Ignatieff, elkarrekin ari direlako kemen handiz euskal literatura errusierara itzultzen.

Zenbat salduko duten? Ez dakit, Errusia oso zabala delako. Zelako oihartzunarekin? Ez dakit, baina, behintzat, eurek sail bat sortu dute euskal literaturaren gainean kasik laguntza barik Errusian.

KARLOS: Lehen aipatu duzunez, zure lanak hamar bat hizkuntzataraz itzulita daude. Zer harreman izaten duzu itzultzaileekin?

JON: Oso harreman estua izaten dut jende guztiarekin. Georgieraz, nik ez dakit zer jartzen duten, jakina.

Egia esan, nire lehenengo liburu itzulia heldu zenean, XX. mendeko euskal literaturaren historiaren gainekoa, itzultzaileak aukeratu zuen nik jada gogoan ez neukan edizio bat, eta nik esaten nuen: "Hau ez da nirea, norbaitek itzuli du eta ez dakit hau nirea den!". Kontraportadan neure argazkia agertzen zen, beraz... Itzultzailearekin harreman handia izan dut, galderak egiten dizkit eta abar eta abar.

Ingelesera itzuli denean, beste horrenbeste. Alemanera itzuli dutenean, antzera. Errumanierara eramanean dutenean nik, beharbada, harreman txikiagoa izan dut. Errusierara itzultzen ari dira, uste dut hor ez dagoela arazorik.

Ingelesekoa, batez ere, oso hurbiletik jarraitzen dudana kontua da. Zalantzak galdetu egiten dizkidate itzultzaileek, eta hutsuneak eurek nik baino hobeto ikusten dituzte. Nik beti esaten dudanez, oso ona naiz besteena ikusten, baina nirea ikusten ez naiz hain ona.

KARLOS: Antzezlanen bat ere euskaratu duzu.

JON: Bai. Oso txarto itzuli ei nuen, Mikel Antzak kritika bat egin zidalako. Saiatu nintzen asmatzen, eta uste dut gaizki asmatu nuela. Garai hartan astitsuago nenbilen, orain ez bezala, eta gogoan dut zelan itzuli nuen. *Antzerti* aldizkaria zegoen martxan sasoi hartan, eta ez dut uste gauzarik ederrena egin nuenik. Kontua da ni saiatu nintzela hirugarren belaunaldikoen berbeta ematen, eta garai hartan hirugarren belaunaldiko gazteek oso gaizki egiten zuten euskaraz. Euskaraz gaizki egiten zuen hirugarren belaunaldiko bat ematen saiatu nintzen. Baina ez nintzen konturatu ikastolen eraginaren ondorioz hirugarren belaunaldikoak izango zirela euskaraz oso ondo egingo zutenak.

Dena dela, gaur egun nik eskolan nabaritzen dut zer bi daudela; nabaritzen dut, batetik, euskara etxetik dakartenek egiten dutela euskara miresgarri bat, eta badirela beste batzuk, euskaraz ikasi egin dutenak, eta ni saiatu nintzen bigarrenen euskara bat asmatzen eta, dirudienez, ez nuen lortu, asmatu bai, baina lortu ez.

KARLOS: Hedabideen galtzada ere zapaldu duzu.

JON: Memento batean, *Eguna* berriro martxan jarri nahi zutela jakin nuenean, nahiz eta astekari moduan izan, nik erabaki nuen argazki hartan egon nahi nuela. *Hemen* eta *Eguna* batera agertu ziren. Pasatzen dena da kazetaritzak ez dituela defentsa handiak uzten. Astero-astero artikulua bat argitaratu behar baduzu liburuei buruz, ez da unibertsitatean bezala; hartan, urtean behin mo-

nografiko bat egin behar izanez gero, defentsak handiagoak dira.

Ni ez naiz damutzen, idazten jarraitzen dut, aldizkarietan, egunkarietan edo astekarietan; egia esateko, batez ere kultur gehigarrietan idaztea ikaragarri gustatzen zait.

Une hartan jende askok esaten zuen unibertsitatea oso urrun zegoela, eta saiatu nintzen hurbiltzen, nik dakidana zabaltzen, baina egia da kazetaritzan aritzen bazara eztabaidarako prest egon behar duzula, eta ni horretan oso motela naiz. Ni diesel motorra naiz.

Baina ez naiz damutzen, *Egunan* egon nintzen, handik bidali ninduten; *Deian* egon nintzen, oso pozik; *Deian*, gainera, *XX. mendeko euskal literatura* liburuaren edizio erraldoi bat egin zidaten, 40.000 alekoa, beraz, eskerrik onenak zor dizkio; *Correok* sari bat eman zidan; *Paísen* egon nintzen, *Correon* ere bai, mugitu egin naiz...

Kazetaritzak apur bat biluzik uzten zaitu, eta arriskua da. Astero-astero kritikan ari direnak euskal literaturan, nik uste dut batzuk erre egin direla, ezta? Beharbada ni ere bai, orain ari naiz beste eremu batean, ez liburuak ateratzen astero-astero, kulturaletan eta bestelakoetan baizik, hilean-hilean. Horrek ere oso ondo funtzionatu behar du, ez da gauza bera astean behin egitea ala hilean behin.

Dena dela, ez naiz damutzen, *Egunako* argazki hartan egon nahi nuen, beste barik. Azken batean, Lauaxetari nion miresmenak eroaten ninduen.

KARLOS: Eta Internet? Kritikarako bide berririk ebaki dizu?

JON: Ez, nik sarean ez dut kritikarik egiten. Interneten badut Saizarbitoriaren omenezko gune bat, etengabe berritzen dudana. Niri ez dit Internetek bide berririk zabaldu, badakit beste batzuei zabaldu dizkiela. Askotan pentsatu izan dut Euskal Herriko literatur sisteman gertatu dela haustura bat, ezta? Garai batean, beharbada, edo egunkarikoak edo aldizkarikoak. Aldizkari literarioak desagertu diren heinean, agertu dira blogak eta agertu da Internet bidezko kritika digitala. Ez dakit, uste dut oso maingua naizela Interneten, ez dakit zein den mugimendua, gauzak nondik nora doazen...

KARLOS: Aspaldi honetan, Gerra Zibila, oroimen historikoa eta antzeko gaiak daude puri-purian. Zu ere halako jardunikoa zara. Erbestera joandako idazle horietako batzuk itzultzaile ere baziren, Ibiñagabeitia, esate baterako.

JON: Gu sartu ginen La Platako Unibertsitateak eskatuta eta liburu txiki bat egin dugu memoria historikoz, haiek gonbidatu gintuztelako lan egitera horretaz. Badakit Andimak egindako itzulpen lan hura lotuta dagoela Euskal Unibertsitatearen ideia bati, halako euskal unibertsitate bat noiz egongo ote zen, asmo bat izan zuten haren taldean: klasikoak euskaratzea. Bide batez, asmo hori berriro gauzatu da beste baldintza batzuekin orain gutxi, Klasikoak bilduma argitaratzeari esker. Baina itzulpengintza ez da nik asko jorratu dudana ikergaia, Gerra Zibilaren oroimena beharbada gehitxo. Azken batean, egungo euskal literaturaren historia jorratzen dihardut.

KARLOS: Badakit bolada batean cronopioen bila jardun zenuena.

JON: Hainbat aldiz joan nintzen Hego Amerikara, eta denek esaten zidaten: “*Cortazar con k, ¡qué horror!*”. Nik, txantxetan, lehen-gusuak ginela erantzuten nien. Eta txantxa horretatik abiatuta, behin esan nuen: “Tira, jakin behar dut benetan zer garen Julio eta biok, familiakoak garen ala ez”. Kasualitatez, Argentinan, beste euskaltzale batek, Pedro Lopepe deitutakoak, euskal literaturaz eta euskal munduaz lan egin nahi zuen. Eta hari esan nion ea zergatik ez zuen berak ikertzen Julio Cortazarren aitona euskaldunaz. Amaren aldetiko aitona oso kontu argia zen, eta oso polita; Julioren aitona bi familia zituen (ezin esan bigamoa zenik): ofiziala eta Cortazarren amamarena, eta azken harekin igarotzen zituen gauak, eta gero etxera itzultzen zen. Julio Cortazarren ama, alaba “onartua” izan ei zen, dena dela. Cortazar aitona hori amona ikustera etorri zen Bartzelonara, eta itzuli zenean, *Príncipe de Asturias* famatuan hondoratu eta hantxe hil zen.

Aitaren aldetiko aitaitaz ez genekien ezer. Julio Cortazarren aita etxetik joan zen, eta Juliok ez zuen inoiz onartu aitaren jarra hori, normala denez, ezta aitaren irudia ere. Beraz, oso gauza gutxi dakigu aitaita horri buruz.

Kolegio garaian, *A fondo* programan Cortazarri eginiko elkarrizketa bat ikusi nuen. Eta gomutan ideia faltsu bat geratu zitzaidan: Cortazarrek esaten zuela haren familia Euskal Herriko herrixka batetik zetorrela, Busturian-edo omen zegoela... Eta nire familia Busturiatik ere zetorren. Baina

beranduago elkarriketa hura berriro ikusi eta ez zuen halakorik esaten. Bai esaten zuen bazela herrixka bat, ustez, haren izena zuena.

Aitaita horren izena ematen zutenean, txarto ematen zuten. Cortazar Mendioroz esaten zuten, eta hemengo irakurle normal batek ikusten zuen gauza handirik ez zekitelatela: Cortazar de Arratia. Egia da deitura horren jatorri bat Arratian dagoela, baina Arratia “provincia de Gipuzkoa” esaten zuten. Lopepe, nire lagun hori, lanean hasi zen Argentinan, eta lokalizatu zuen Pedro Cortazar Mendiola, eta Internet zoragarriari esker, Bizkaiko Elizbarrutiko Artxiboan izen-deitura horiek idatzi eta mementoan agertu zen, eta Eakoa zen. Bide batez, Internet erabiliz, bagenekien Pedro Cortazar horrek jaso zuela Espainiako Etxea Salta hirian, eta aurkitu nuen etxe hura inauguratu zuten egunean eginiko argazki bat, baina ez genekien haietako nor zen bera. Artxibategietara jo nuen, Diputazioko Artxibategira; badirudi Pedro Cortazar hori marinela zela, eta oso gazte heldu zela teniente izatera, gazterik joan zela Argentinara, eta hemen ez zegoen beste dokumentaziorik hari buruz. Bai, hemen geratu zen arrebari buruzkoa. Beste bi anaia hil ei zitzaizkion txikerretan. Arrebari eta aitari buruz bai, baina Pedroren gainean ez.

Laguna Saltara joan, eta han informazioa lortu zuen. Lortu zuen bekak ez zion askorako ematen, baina hara abiatu zen, alde hartako distantzia ikaragarriak gaindituta. Saltako aldizkari batean nekrologikoa aurkitu zuen, argazki eta guzti, eta Espainiako Etxearen inaugurazioko argazkian kokatu ahal izan genuen. Eara joan ginen, eta sor-

lekua ikusi genuen, egia esan; nongoa zen familia, familiak etxe bat izan zuelako Ean. Hara joan, bati galdetu ea Kortazar deiturako inor ezagutzen zuen, eta hark erantzun: “Ni naiz Kortazar bakarra”. Julioren ipuin batean bezala.

KARLOS: Amaituz joateko, zelako giroa ikusten duzu egun unibertsitatean euskal literaturaren inguruan?

JON: Gauzak zabaldu egin dira, bai metodologia aldetik, bai jendearen aldetik, jende asko ari da lanean. Jende gehiago, tesi gehiago, ez dago kromo bakar bat, asko baino, jende asko lanean. Bestalde, aldizkariak ere maldan behera doaz, eta kontu hori ez da ahaztu behar.

KARLOS: Lotura berezia izan zenuen EIZIEko sortzaileetako batekin, J.M. Lekuonarekin.

JON: Bai. Lekuonaren poesia osoa argitaratu zuen EHUKo Argitalpen Zerbitzuak, garai hartan ezagutzen zen guztia, euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzia. Gero, EIZIERi esker, Lekuonak eskuz itzulitako poema batzuk —Clara Janésen *Emblemas*— plazaratu genituen, baita aurkeztu ere Lete hil zen egunean bertan.

Oso harreman ona izan dut beti EIZIErekin, hari esker Lekuonak emazteari eta bioi erregalatutako itzulpen eskuzko hura oso edizio ederrean argitaratu genuelako, elkartearen aurreneko lehendakari izandakoa omentzeko, bide batez. Liburu hori etxean genuen, oso ondo zainduta, eta haren lan guztiak, eskuizkribuak ere, argitaratzen ari nintzenez gero, lehenengo *Ibaiak basamor-*

*tu*an agertu zen, eta gero *Emblemas* tokatzen zen.

KARLOS: Behin, gainera, parte hartu zenuen Tarazonako Itzultzaileen Etxean EIZIEK antolatutako lantegi batean.

JON: Pello Lizarralderekin eta haren lana itzuli behar zuten itzultzaileekin izan nintzen. Esperientzia on-ona izan zen hura: itzultzaile batzuk sartu eta Pello Lizarralderekin batera aritu haren ipuin bat itzultzen. Pello ezagutzen nuen, baina halako gogo jardun moduko esperientzia bat izan zen, eder-ederra.

KARLOS: Bestalde, zer da EHUn zuzendu duzun *Gaurko Euskal Literaturaren Historia?*

JON: Azkeneko euskal literaturaren entziklopedia bat. Saiatu gara —nik batzuetan diodanez, XIX. mendeko proiektuen zalea naiz— halako egitasmo erraldoi bat on-tzen; zortzi liburu izango dira, orain arte sei agertu dira eta beste bi bidean dira, amaituta baitaude. Ez dakit asko edo gutxi sal-

duko diren, baina oso lan berezia da, azken euskal literaturan zer gertatu den azaltzen duelako. Ale bakoitzak sarrera luze bat du eta gero hogeit bat liburu sakon aztertzen dituzte ikertaldekoek. Ez da, batzuek hala uste izan arren, liburu bat bestearen atzetik. Iritzi hori proiektu hau txarto irakurtzea da, hitzaurreetan oso garbi azaltzen delako zer gertatzen den euskal literaturan, bizitza literarioan, zer gertatu den genero bakoitzarekin, nolako tentsioak izan diren. Oso historia entziklopedikoa da, hogeita hamar bat urteren historia egiten ari garelako. Parte handi bat ingelesera itzulita dago, eta jende askoren laguntza izandako lan erraldoia izan da: duela gutxi 5.600 orrialde argitaratu dituzte Espainiako literaturari buruz, oso historia lan ona eginda; gure literaturaren tamaina ikusita, guk 2.400 orrialde eman ditugu argitara. Beraz, hartan jarriz gero, gauza izango ginateke euskal literaturaz oso gauza potoloa paratzeko.

KARLOS: Ea noiz osatzen dugun tamaina bereko euskal itzulpenaren gaineko historia batez.

A la orilla del camino, con Jon Kortazar

Entrevista a Jon Kortazar Uriarte, que además de desarrollar una gran actividad científica, crítica, pedagógica y difusora en torno a la literatura escrita en euskera en los siglos XX y XXI, también está relacionado, de diversos modos, con la traducción y con la asociación EIZIE. Además de hacer un repaso de su andadura, en la entrevista reflexiona sobre la difusión de la literatura escrita en euskera, los problemas que plantea la salida al mundo de esa producción y su estrecha relación con una adecuada política de traducción, entre otros asuntos. Jon Kortazar ofrece un testimonio y un relato imprescindibles sobre una parte importante de la cultura vasca de finales del anterior siglo y de comienzos del actual.

Au bord du chemin, conversation avec Jon Kortazar

Entretien avec Jon Kortazar Uriarte qui, outre son activité scientifique, critique, pédagogique et de divulgation de la littérature basque des XX^e et XXI^e siècles, est également en rapport avec le monde de la traduction et l'association EIZIE. Dans cet entretien, il passe en revue son parcours professionnel et apporte une réflexion sur la diffusion de la littérature écrite en langue basque, il souligne les problèmes que celle-ci doit affronter pour se faire connaître dans le monde, problèmes étroitement liés à une politique adéquate de la traduction. Jon Kortazar nous offre ici un témoignage et un discours d'une importance capitale pour approfondir, dans une grande mesure, notre connaissance sur la culture basque de la fin du siècle dernier et du début du siècle présent.

On the Edge of the Road: an Interview with Jon Kortazar

An interview with Jon Kortazar Uriarte, who has carried out many scientific, critical, pedagogical and promotional activities concerning literature written in Basque in the 20th and 21st centuries, and is also associated in various ways with translation and with EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarte, the Association of Translators, Correctors and Interpreters of the Basque Language). In addition to reviewing his career, he reflects in this interview on the dissemination of literature written in Basque, on the problems that arise in transmitting this literature to the rest of the world, and on his strong ties with an appropriate policy on translation, among other topics. Jon Kortazar offers his inestimable testimony together with the story of an important part of Basque culture at the end of the previous century and the beginning of the present one.